



1HI-027/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 26an Vitoria-Gasteizen Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

I. Leza udalerriko "S.A.U.I.1 Lurzoru Urbanizagarriko Sektorea desklasifikatzeari buruzko Plangintzako Arau Subsidiarioen 1. aldaketa" izeneko espedientearen berri ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren maitatzaren 31ko 4/1990 Legearen Lurraldearen Antolamendurako tresnetara, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzearen inguruan, honako termino hauetan:

- a) S.A.U.I.1 Lurzoru Urbanizagarriko Sektorea desklasifikatzeko eta Nekazaritzako Erabilerako Lurzoru Urbanizaezin gisa osatzen duten 4,19 Ha-k kalifikatzeko proposamenari eragozpenik ez jartzea, jarduera ekonomikoen lurzoruaren lurralde-antolamenduari eta ingurune naturala babesteari dagokienean.
- b) Proiektatutako upeltegia ezartzeko, Guardiako (Arabako Errioxa) LZPren Araudiko 34. artikuluko 1.2. artikuluan ezarritakora egokitu beharko da. Bereziki aipatu behar da, garatzeko plan berezia behin betiko onartzeko, aldaketaren esparruan proiektatzen dituzten mahastietarako 1,99 Ha-k, erabilera hori izan dezaketen beste hainbat lursailen erregistro-loturarekin osatzen direla. Lursail horiek udalerrian bertan edo Eremu Funtzionaleko beste edozein udalerritan egongo dira, LZPk exijitutako 10 Ha-k osatu arte.
- c) 07.07.11 data duen Uren Zuzendaritzaren txostenaren baldintza lotesleak bete beharko dira.

II.- Lezako Udalari, ziurtagiri honekin batera doazen Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzak (I. eranskina), eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen, eta Herrilan eta Garraio Zuzendaritzek (II. Eranskina) egindako txostenak igortzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91.4. artikulua onorioetarako kontuan har daitezen."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 26an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea Iturregi.